

Gu Oiartzo ikastolako administraritzako gaiko lau ikasle gara, hiru letretako eta zientzietako bat. Ideia batek bultzatuta elkartu gara eta gaixotasun espezifiko bat duten pertsonentzat egoitza bat egitea pentsatu dugu.

Gure enpresak Alzhome du izena, alzheimerra duten pertsonentzako egoitza. Egoitza Zestoan kokatuta egongo da, autopista ondoan, horrela, gaixoen familiek erraztasuna izango dute residentziara iristeko.

Ideia hau beste ideia batengatik sortua da. Hasieran zaharren egoitza bururatu zitzaigun. Hainbat ikerketa eta datu aztertu ondoren ikusi genuen alzheimerrak etorkizunean pertsona gehiagok edukiko duela, eta eraginkorrago izango zela residentzia bat egitea. Datu nabarmenena hau da: 90 urteko aitona-amonetako %12-ak edukiko du alzheimerra.

Datu hauek aztertu ondoren, ikerketa zentro bat eta gaixotasun hau duten pertsonentzat egoitza egitea komenigarria zela iruditu zitzaigun.